

MAITE ERESTI BETIKORRA

(Julio Flórez)

Orro dagi itxasoak, kizkurtu ta aunditu;
illazkia, argi-txori, egarako gertu;
ta arpegia altxatzeko lipar-liparrean,
pa elñaz itxasori gorantza doa uzu.

Tekultzak ok oi ditun bidutzi mukerrak,
beera ta gora aziaz beti dabilenak,
aren txera nabaituz asperenka dago,,,
ta bere aitz-kaiolan dagiz zirgit leunak.

Gizaldiak gizaldi, aspaldi batenik,
maitez dardar dagie udako gauetan;
«arek» bere dirdirak daimotsoz ederrik,
«onek», pitxi-koralak eskintzen uretan.

Maitale zar minduok, arroaren puztuz,
maite-miñak dabiltzaz alkarrí agertuz;
«arek» dirautso «maite zaituts» bere islatan,
ta «onek» ots «laztantxo» bere orroetan.

Loa dakartso «arek» bere argi utsez,
ta itxasoak betikor oiuaz dau urrunbatzen;
bere joran-saminiñak dautsoz iragarten
mugagcan ots zakar dagian abotsez.

«Aks», laru baizen zurbil, dantzutso ta, igonik,
maitez itz dagio zerutar izkeran,
ta lañoen atzean mosua estaliz
dardarka barrun daukon miña dau gordetan.

Bere maitasuna ba-daki ezin dana;
itxasoak artzen daula galtzarro kolokan,
ta trumoiak ots dagan bidutzi oztiñan
leiar igikorrean begitzen da bera.

Ta, mendi-sail otz atzetik, beerantza jastean
itxasok ots: «Erreten nago zure sutan!
Etzaitez, ene izar, ain arin etzan!
Ene izar kutun ori, etzaitez joan, ez!»

Sista bat, arren!... Goza eidazu kirats au,
busti bait-nozu zeure ortzi-argi mean!
Etzaitez joan!... Aratz ez dakusu ñirñir
zure iduria ene errai oztiñean?»

Eta «ak» intziri, bere gogaldi eroan:
«Eriok nau nun-naitik esiz inguratzen!
Ta ezin naz gelditu, ene bidutzia!
Iltzeар gaixoari izan errukia!»

Azken lera-mosua dautzut bialduten;
nire atzen erlantza zure mosuz batzen!...»
Ta usguneko aizaro sakonetan otsik,
illotz biurturikan, jausten da bertatik.

Ordun itxasok, buru batetik bestera,
bere erostazko bagak izur itzultzean,
mugage, itun, babesik bako ta bakarti,
urertzak dauz beteten bere negarrean.

Ta illargi zuriaren oiñatz dizditsuak
oial illun arteko begi emotean,
iñartsi-miñez dardar dagie izarkiak
zerupeko eremu bakar sakonean.

Dana ixill!... Lo itxasoak eta akar-esatean
cztau bere basakar gedarrez gogaitzen,
ta ames dagi illargia dauala mosutzen
gauaren galtzarreko ezkonoe baltzean!